



3 DANTZA

**Dantzari Txiki
Eguna ospatuko da
Igandean**

Herriko Erketz dantza taldeak Dantzari Txiki Eguna antolatatu du beste urte batez. Dagoeneko XXIV. edizioa da eta goizeko 11:00etatik aurrera herriko kaleetan barrena arituko dira dantzariak kalejiran. Herriko taldeez gain, Erketz eta Kuku-ka, Oreretako Ereintza eta Urretxuko Lurrako dantzariak parte hartuko dute.

5 ELKARRIZKETA

**Ander Bardaji
Errealeko gazteen
atezaina**

Errege Kopa jokatzeko ari da gazte mailako Erreala. Igandean, hilaren 27an, eguerdiko 12:00etan, Zubietan, Bartzelonaren aurka jokatzeko dute final laurdenetan eta ekainaren 3an Bartzelonan erabakiko da kanporaketa. Lasarteoriatarrek ikasketekin uztartzen du futbola eta maila onean dabiltzen arren, oraindik ikasteko daukala aitortzen du. Bere ametsa lehen taldean jokatzera iristea da.

6 PILOTA

**Herri arteko
txapelketaren lehen
partidak Michelinen**

Herri arteko eskupilota txapelketa duela bi aste hasi arren, Lasarte-Oriako taldeak final zortzirenetan hasiko du bere ibilbidea. Gaurkoan faboritoen artean dagoen Donostiako taldearen aurka jokatzeko dute herriko mutilek. Etorriko partidak gaur, ostirala, 19:00etatik aurrera Michelingo pilotalekuan jarraitu ahal izango dira.

Aste Berdea ospatuko da

Ingurumenarekin lotutako ekintzak Ekainaren 4tik 8ra egingo dira

Nerea Sanchez hirigintza, ingurumen, merkataritza eta osasun batzorde buruak aurkeztu zuen ekainaren 4tik 8ra egingo den Aste Berdea. Urtero burutzen den ekimen honetan, bi ekintza izango dira nagusi. Lehena, eraginkortasunez gidatzeko ikastaroak eta bigarrena, berrikuntza moduan, herritarren parte hartzea sustatzea oinarri duen ekimen berdeen bilduma izango da.

Nazioartean ospatzen den ekimena da Aste Berdea eta aurreko urtean Lasarte-Oriako udalak ekimen bereziak antolatatu nahi izan ditu honen harira Nerea Sanchez zinegotziak azaldu moduan.

Aurtengo leloa "Ekonomia berdea, zu ere hartzen al zaitu?" da eta hau "modu askotara interpretatu daitekeen leloa denez, guk ez ohikoak diren ekintzak antolatzen saiatu gara" azpimarratu zuen zinegotziak.

Ekintzak bi izango dira nagusiki, batetik eraginkortasunez gidatzeko ikastaroak burutuko dira ekainaren 5, 7 eta 9an. Astearte eta ostegunetan 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean berriz, 10:00etan hasita. Lau orduko iraupena izango duten ikastaro hauek alde teorikoa eta praktikoa izango dute. Lehenik gutxiago kutsatu eta kon-



Nerea Sanchez Mikel Urruzola Artelatzeako kidearekin batera aurkeztu zuen Aste Berdea.

tsimitzeko nola gidatu behar den ikasiko dute parte hartzaileek eta ondoren, praktikan jarri ahal izango dute.

Ekimen berdeak

Bestetik, herritarren parte hartzea oinarri duen ekimen berdeen bilduma osatuko da.

Bigarren honetan herritarrek euren eguneroko bizitzan ingurumena zaintzeko egiten dituzten ekintzak jasotzea da helburua. Adibidez, konposta etxean egiten dutenak, haurrentzako pardel ekologikoak erabiltzen dituztenak, ur

gutxiago kontsumitzeko gailu ezberdinak komunean edota sukaldeko iturrietan erabiltzen dituztenak...esperientzia horien guztien berri izan nahi da.

"Etxean egiten ditugun gauza txiki horiek ezagutu nahi ditugu eta hauek zabaldu".

Izena ematea

Esperientzia guztiak arte-latz@artelatze.com helbidera edota 943 670 249 telefonon jasoko dira ekainaren 1a arte. Ondoren, liburuxka

batean bildu eta erakutsi egingo dira ekainaren 6an 10:00etatik 13:00etara Brigidan eta ekainaren 8an 17:00etatik 20:00etara Oken-do plazan. Herritarrek gainera ekimen hauen artean hobere-rik, praktikoena edota gogokoena bozkatzeko aukera izango dute.

Gidatzeko ikastaroa burutzeko ere, izena eman behar da aurrez aipatutako telefono zenbakian. Nerea Sanchezek herritarrek ekimen hauetan parte hartzea animatu nahi izan zituen.

<p>MEKANIKA MANTENIMENDUA</p> <p><i>Diseina ezazu zure etorkizuna!</i></p> <p>HEZI BIZI HAZI</p>	<p>ELEKTRIZITATEA ELEKTRONIKA</p> <p>IKASTETXEA IKUSTEKO AUKERA</p> <p>PUERTAS ABIERTAS MAIATZAK 31 MAYO</p> <p>17:00 - 20:00</p>	<p>DISEINUA INPRIMAKETA</p> <p>SALESIANOS urnieta SALESIARRAK</p> <p>Aurreiskripzio epea: Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra</p> <p>www.salesianosurnieta.com 943 551 789</p>
--	--	--

Neure kabuz



Mailu Arruti

Errege Katolikoetatik Errege Kaotikoetara

Bizi dugun sistema politikoa "Monarkia parlamentarioa" omen da. Bere defenzatzaileen hitzetan, dagoen sistemarik demokratiko eta justuena. Zorionekoak gu!

"Jainkoaren graziaz!" eta estatu kolpe batek pixka bat lagunduta, bere burua buruzagi goren izendatu zuenak inposatu zigun erregetza hegoaldean.

Frantzia berriz, errege absolutuei lepoa moztu zieten aspaldi. Gaitz erdi iparraldekoentzat.

Euskaldunoi gaitz hauek hala ere aspalditik datozkigu. Hain justu, Errege Katolikoan garaitik. Espainia asmatu zutenetik.

Ezin ba bakoitza bere lurraldearekin konformatu eta...besteak gogoan... "Konkistara" abiatu ziren.

Herrialdeak "deskubritza". Mundu berria "deskubritu" zuten. Haiek beraien burua ederki ezagutzen zuten espainol, portugez eta abarrek "deskubritu" aurretik. Bai hala jaina!

Baina "deskubritu" hitzaren atzetik sakeatu zegoen noski. Hitz hori justifikatzeko ez dago pixka bat begiratzea besterik. 500 urte eta piko beranduago, Mexikotik Patagoniara "Konkista" aurreko zenbat kultur zeinu galdu dituzten eta hizkuntza aldetik zer sarraski egin zuten. Hori 1492 aldera hasi omen zen. Errege eta Katoliko izenpean.

Egun hauetan beste data bat badabil gure herrian gogora ekarri nahian 1512 hain zuzen. Errege Katolikoak Espainia "batua" asmatzen egin zituzten ahaleginen data mingarria. Gure eskubideak hankapean hartuta egin bai zuten.

Hain zuzen ordutik euskaldunok menpekotasuna sufritzen dugu. Eta azken ia 40 urte honetan Errege Kaotiko bat pairatzen dugu. Bere burua eta bere "familia eredugarria" ezkutatu ezinik dabilena. Zer nezesidade daukagu horrelako auzo-lotsa pasatzeko? Batez. Erregek, katolikok, Kaotiko eratorri bai du hemen.

Zorion agurrak



Naroa

Zorionak garbantzito, 7 muxu. Pastelak ahaztu gabe! Haizea, Andrea eta besteon partetik.



Eider

Hamazazpi muxu handi familiaren partetik baita gurasoentzat ere 20. urteurrenean, zorionak!



Eider

Bederatzi muxu handi gurasoen partetik. Ondo pasa eguna.



Aiora

Zorionak polita zure 7.urtebetetzean eta muxu handi bat familiaren partetik.



Bruno

Zorionak Bruno. Ondo pasa zure egunean... Bean partetik.



Paste

Zorionak Passsss! Ondo pasa zure urtebetetze egunean eta bazkaria zure kontu. Koadrilaren partetik!



Ekhi eta Aizpea

Zorionak zuen lehenengo eta 28. Urtebetetzean! Ondo ondo pasa eguna! Familia guztia- ren partetik.



Malen

Zorionak eta hiru muxu handi familiaren partetik.



Irati

Zorionak bihotza! Zazpi muxu handi aitaixo, amaixo eta Asierren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Danel Jimenez Usarralde, maiatzaren 16an.
- Elias Santos Barbe, maiatzaren 16an.
- Lier Garmendia Cespedes, maiatzaren 15ean.

Heriotza

- Josefa Greño Ochoadealda, maiatzaren 22an, 97 urte zituela.

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 26 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 27 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 28 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 29 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 30 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 31 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chucla, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaientza immobiliariorak

- Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680 674 577
- Etxea salgai erdialdean, bizitzeko modukoa, altzariekin. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. 171.288 euro. Harremanetarako deitu 659 594 797 zenbakira.
- Pabilioi industrialak saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu. Harremanetarako, 658 910 569.

Salerosketa

- Egoera onean dagoen ordenagailu mahai bat saltzen da. Telefonoa: 654 167 077

Lan-eskaientza

- Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko. Ekainetik hasita iraila arte. Eskolatik

ordu kanpoko orduetan izango litzateke. Intereza dutenek 665 716 075 telefonora deitu arratsaldeko zazpizatetik aurrera.

Lan-eskariak

- Kotxea duen gizona lanerako prest. Tabernetan ontziak garbitu, edota bestelako lanak egingo litzuzke. Walter 625 423 540
- Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrrian trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuek 679 526 305 telefono zenbakira dei dezatela.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko 15:00tik 19:30ra garbiketa lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako 619 803 199 telefono zenbakira deitu.
- Gizonezkoak nekazaritza lanak edo beste edozein egingo litzuzke 14:00etatik aurrera.

Harremanetarako, 625 423 540.

- Geriatrizar laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixok edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.
- Magisteritza ikasten ari den neska euskaldun bat, haurrak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest dago. 649207669
- Emakumea eskaintzen da adinduek zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. 629 871 605 Mirna.

Bestelakoa

- Mobilhome bat alokatzen da uztaila eta irailen, Landetako Leon lakuan. Harremanetarako, 660 057 667.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

DANTZA



laz Andatza plazan ospatu zen Dantzari Txiki eguna, aurtengoan Okendora bueltatzen da jaialdi handia.

Dantzari txikien egun handia

Igandean ospatuko da Erketz dantza taldeak urtero antolatzen duen Dantzari Txiki Eguna

Dantzari Txiki Eguna igandean ospatuko da goizeko 11:00etan hasita. Herriko taldeekin batera dantzari arituko dira Urretxuko Lurra dantza taldekoak eta Erreterriako Ereintza taldeko dantzariak. Aurtengoan kale egun du Nafarroako Faltzes herriko dantzari taldeak.

Igandean Erketz E.D.T.-ek antolatuta Dantzari Txiki Eguna ospatuko da herrian. Aurtengo XXIV. edizioa izango da eta guztira, 250 haur inguru bilduko ditu festa honetan euskal dantza taldeak.

Erketzekin batera, Kukuka-koak ariko dira baita Urretxuko Lurra eta Erreterriako Ereintza dantza taldeko kideak ere. Aurreko urteetan Nafarroako Faltzes herriak

dantza taldea etorri izan da baina aurten parte hartzeko asmoa izan arren, azken momentuan atzera egin behar izan du Erketzek azaldu moduan.

Egun osoko festa

Dantzariak goizeko 11:00etan abiatuko dira herriko kaleetan barrena euren dantzekin. Bi taldetan banatuta, batzuek Zumaburu eta Sasotan barrena arituko dira eta besteek,

Okendo eta Manuel Lekuona kultur-etxe inguruan egingo dute bidea. Ondoren denak Okendo plazan elkartuko dira.

Arratsaldeko saioa

Talde guztiak Okendo plazan bilduko dira arratsaldeko 16:30ean eta 17:00etatik aurrera, dantza saio handia eskainiko dute.

Talde bakoitzetik bikote batek Agurra dantzatu du. Ondoren bi dantza eskainiko ditu talde bakoitzak eta bukatzeko, guztiak elkartuta amaiera emango diote ikusizunari. Elkarrekin Fandango, Arin-arin eta Kalejira bat egingo dute dantzari txikiak.

Zaintza errazteko jardunaldiak

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuen departamentuak formazio-jardunaldiak antolatuta hurbileko ahaideekin zaintzaile-lanak egiten ari diren pertsonentzat. Astelehenean hasita gaur amaituko dira egunero bi orduko iraupena izan duten saioak.

Gai asko izan dira egun hauetan Villa Mirentxun landutakoak. Astelehenean erizainak izan ziren etxean eskaini daitezkeen oinarriko osasun-zainketen inguruan hitz egiten. Asteartean berriz, Ingema-ko kideak laguntza teknikoak izan zituen hizpide. Gaixoak errazago mugitzeko dauden produktuak eta jarraitu beharreko teknikak azaldu zituzten besteak beste, garabi elektrikoak nola erabili edota gurgil aukietatik pertsonak mugitzeko zainzaileak min



ez hartzeko egin beharrekoak azaldu zituen.

Asteazkenean udaleko gizarte langileek hartu zuten hitza egun erakundeek eskaintzen dituzten baliabide eta laguntzak azaltzeko. Ostegunean, legedia hizpide pertsona baten ezintasuna legalki aitortzeko prozesu judizialak, tutoretzak eta halakoak eskatzea komeni den ala ez fami-

liak nola baloratu behar duen azaltzeko. Gaurkoa azken saioa izango da eta sostengu psikologikoa izenpean, zainzaileak zaintzen espezializatutako psikologoak eskainiko du. Parte hartzeko aurrez izena eman behar zen gizarte zerbitzuetako bulegoan eta harrera oso ona izan da herriartean, gehienak emakumeak.

JAIK

San Pedrotarako kartela hautatu

Herriko festen kartela lehiaketan aurkezteko azken eguna izan zen maiatzaren 18a eta dagoeneko aurkeztutako kartel guztiak www.lasarteoriasarean.eu webgunean ikusgai jarri ditu Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak Batzordeak. Hauek sinadurarik gabe azaltzen dira eta horrela lan hobereana herritarrek hautatzea nahi dute.

Iritzia emateko email bidez egiteko aukera jarri dute esku-agarri. Festetako sailak herritarrek hautapen honetan parte hartzerantz animatu nahi ditu.

SOKA-DANTZA

San Juan surako entseguak hastear

Datorren astelehenean hasita, maiatzak 28, lau astelehenean izango dira San Juan Suan Soka-dantzan aritzeko entsegu irekiak. Horrela ekainak 4, 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Hauetan nahi duten herritar guztiak har dezakete parte.

HITZALDIA

Gatazkak konpontzeko bitartekaritza

Familia gatazkak konpontzeko bitartekaritza zerbitzu publikoaren inguruan hitzaldia egingo da maiatzaren 30ean, asteazkena, Villa Mirentxun 19:00etan.

Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzarena da eta honen lana ezagutzera emateko asmotan egingo da hitzaldia herrian. Familia eta bikoteei zuzendutako zerbitzua da eta edozein gatazka bideratzeko laguntza ematen du. Horrekin batera leku neutral bat eskaintzen die familia zein bikoteei arazoaren inguruan hitz egiteko besteak beste.

SORGIN DANTZA

Entseguak ekainean hasiko dira

Dagoeneko gerturatzen ari dira Sanpedroak eta hau dela eta sorgin dantzarako entseguak ekainaren 7an hasiko dira. Astearte eta ostegunetan egingo dira entsegu irekiak eta hauetan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.

Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egitekotan, entseguak Landaberri BHI-n egingo dira eta eguraldi txarreko egunetan, Landaberri-Garaiakoetxea eraikinerantz pasako dira saioak.

BIRZIKLAPENA

Altzari "berriak" Okendon

Arkitekturako 50 ikasle, lau ostiraletan izan dira Okendo plazan. Udalar emandako material zaharra berrerrabili dute hiri altzariak egiteko. Nerea Sanchez Hirigintza batzordeko buruaren ekimenez, EHU Arkitektura irakaslea den Josemi Martinez Ricorekin garatutako elkarlan proiektua izan da eta dagoeneko altzariak bukatuta eta plazan kokatuta daude.

Oso balorazio positiboa egin du Nerea Sanchez zinegotziak azken asteetan arkitekturako ikasleek burututakoak. Gainera, herritarrek hauek erabiltzen hasi direla ikusita, ekimena arrakastatsua izan dela azaldu du.

Era berean, Udaletxe berriaren arkupetan ikasleek diseinutako proiektu guztiak jarri dira ikusgai erakusketa moduko bat osatuz. Azkenean hiru izan dira egindako altzariak "denbora mugatua izan dutelako baina proiektu politik proposatu zituzten Okendon jartzeko".



Lasarte-Oriako biodibertsitatea zaintzen

► *Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Lehen Hezkuntzako gazteek Agenda 21 ekimenean burututako lana aurkeztu eta proposamen ugari egin zizkieten udal-ordezkariei*

Lasarte-Oriako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako gazteok herriko Biodibertsitatea aztertu dute ikasturtean zehar. Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan egindako lana izan da eta honetan hainbat ondorio eta proposamen atera dituzte herriko biodibertsitatea mantentzeko. Hauek guztiak atzo eguerdian Udalean egin zen Udalbatzar berezian jakin arazi zizkieten Udalarari.

Nerea EIZAGIRRE

Lehen Hezkuntzako gazteok Udalbatzar aretoa bete zuten atzo eguerdian. Hirugarren urtez, Eskolako Agenda 21-ean egin duten lana eta honen ondorioak azaldu zizkieten Pablo Barrio alkateari, Nerea Sanchez Ingurumena, Merkataritza, Osasun eta eta Hirigintza batzorde buruari eta Boris Nogales Euskara, Hezkuntza eta Kultura batzorde buruari.

Ekimenean Landaberri-Garaikoetxea eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan 1287 ikaslek parte hartu dute.

Gelan biodibertsitatearen inguruko alderdi ugari aztertu dituzte, bai naturan, baita arlo kulturalan ere. Ekosistema desberdinak landu, izaki desberdinak eta Euskal Herriko zuhaitzak ezagutu, Txoko

berdea eratu eta kultura desberdinen aberagarritasuna eta errespetuzko jarrerak izaten ikasi dute.

Ingurunea ere aztertu dute. Honetarako hainbat irteera egin dituztela aipatu zuten, hala nola, Froilan Elespe parke botanikoa eta hezegunera, Oria ibaiaren "Faunaren behatokia" edo Leitzarain ibaiaren dagoen interpretazio zentrorra.

Ikasleen arteko foroa

Bi ikastetxeetan egindako lana elkar banatzeko, gazteok ordezkariek maiztaren 2an bildu ziren.

Solasaldi luze baten ostean, konpromiso batzuk hartu zituzten, bai ikasleek, baita eskolek ere.

Honela, besteak beste, gazteok zabor gutxiago eragiten saiatu eta sortzen



Eskolako Agenda 21-eko udalbatzar berezian parte hartu zuten gazteok irakasle eta udal-ordezkariekin batera.

dena dagokion edukiontzian sartzea, landare babestuak eta animaliak bakean uztea, landare inbaditzaileak, txikiak badira kentzea edo beste kulturetako eskola-kideak errespetuz tratatu, eta laguntasuna azaltzea erabaki zuten.

Eskolei dagokionez, hain betebeharrak bertako berdeguneak zaintzeko kanpaina bat antolatzea, urtero natura-

rekin lortura duten bi irteera antolatzea, eskolako naturgunea ezagutzeko eta baldintza onetan mantentzeko baliabideak jartzea eta urtero, gutxienez behin, gurasoei gai honen inguruan interesgarria izan ditezkeen informazioak zabaltzea izango dira.

Udalari proposamenak

Era berean, bilera honetan udal-ordezkariei atzo aurkeztu zizkieten eskaera eta proposamenak finkatu zituzten. Izan ere, ikasleek batzar berezian azaldu zuten, ikasturtean zehar egin dituzten jarduerak, eta iazkoak kon-tuan izanik, udalerriko diagnostiko bat egiteko aukera izan dute.

Animalia eta landare inbaditzaileak kendu eta espezie hauek ez ugartzeko neurriak hartzea, desagertzeko arriskuan dauden espezieak babestea, baso garbiketarako antolatzea, "Zuhaitzen egunean" zuhaitz gehiago landatu ahal izateko toki gehiago eskaintzea, auzo berriak sor-

terakoan eremu berdeak jartzea edo herriko eremu naturalan eraikuntzarik ez egitea izan ziren gazteok Pablo Barrio alkateari egin zizkieten eskaerak.

Gazteek aipamen berezia egin zioten erauskailuaren eraikuntza gelditu eta atezateko sistema herrian ezartzeari.

Eta kontzientziazio kanpaina egitea ere azpimarratu zuten, animaliak edozein lekutan ez uzteko, maskotak nola zaindu ikasteko, herriko baso eta errekek garbi mantendatezen.

Pablo Barrio alkateari eta Nerea Sanchezek gazteok egindako lana goraipatu zuten. Gainera, ideia politikak daudela eta proposamenak aztertuko direla azaldu zuen alkateak.

Era berean, Nerea Sanchezek gazteei gogoratu zien guztien ardura dela herriko biodibertsitatea zaintzea, "guztiak egin dezakegu zerbait. Honetarako elkarlana beharrezkoa da".



Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako gazteek egindako lanaren ondorio eta proposamenak aurkeztu zituzten.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA !

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



Ander Bardaji Gazte mailako Errealeko atezaina

“Zubietatik jokalaria on asko atera da”

- Jubenil mailako Errealean jokatzen ari da Ander Bardaji Lasarte-Oriako atezaina
- Errege kopako final laurdena jokatuko dute igande eguerdian Bartzelonaren aurka

Errege Kopa jokatzen ari da gazte mailako Erreala. Igandean, hilaren 27an, eguerdiko 12:00etan, Zubietan, Bartzelonaren aurka jokatuko dute final laurdenetan, eta ekainaren 3an Bartzelonan erabakiko da kanporaketa. Egungo txapelkunak dira kataluniarrak baina Errealean jokatzen duen Ander Bardaji lasarteoriarrak, badu txapelketa honetan esperantzarik. Final zortzirenetan Xixongo Sporting taldea gaititu dute: han 4-4 berdindu zuten eta hemen 4-3 irabazi. Beste final laurdenetan Valentzia-Malaga, Espanyol-Racing eta Atletico de Madrid-Tenerife dira.

Jon ALTUNA IZA

Denbora libre gutxi izaten du Ander Bardajik ikasturtean zehar, ikasketak eta futbol entrenamenduak direla eta. Batxilergoa ikasten ari da zientzien arloan marrazketa teknikoaren bidetik eta, orain, behin azterketak amaituta, lasaiago dabil. Dena den astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan gazte mailako Errealekin entrenatzen du eta igandetan partida jokatzen. Txandaka jokatzen dute berak eta Asier Capilla beste atezainak. Txapelkunen kopan Bardajik jokatzen duen. Errege kopako lehen kanporaketan, aldiz, Capillak.

Euskal Herriko ligaxkan sailkatu eta gero bi txapelketa horietan parte hartu dute: "Txapelkunen Kopa Lepen jokatzen guren maiztasun hasieran Estatuko zazpi ligaxketako txapelkunen eta bigarren sailkatuen artean onenak, eta orain Erregearen kopa jokatzen ari gara, 16ren artean, ligaxketako lehen biek eta hirugarren bi onenek (hain juxtu Athletic hemen eta Real Madrid Madrilen)" azaldu digu Anderrek. Txapelkunen Kopako final laurdenetan Sporting-ekin galdu egin zuten, baina Errege kopako lehen kanporaketan, talde bera gaititu dute.

Talde guztien artean maila berdintsua dagoela eta ez du Ander Bardajik zerbait egiteko esperantzarik galdu. "Maila aldetik parekatuak gaude denak, adibidez, txapelketa irabazi zuen Sevillaren aurka penaltietan galdu zuen Sporting-ek. Ez da egon hainbesteko alderik".

Hemengo ligaxkan txapelkunenak izan zineten...

Bai, baina hiru taldek berdinduta bukatu guren, Errealek, Athletic-ek eta Danok Bat Bilboko beste taldeak, beraz ez da erraza izan, teknikoki parekotasun handia dago.

Athletic al da zuen aurkari gogorrena?

Bai, beti izaten da gogorra. Eta aurretik oso ondo aritu ez bada ere, Osasuna, ere bai.

Nolakoak dira derbyak?

Orekatuak, hemen Athletic-ekin bina egin guren, irabazten hasi ziren, gero aurreratu egin ginen eta azkenean berdindu. Han 1-2 irabazi guren. Batek irabaziko

“Ia egunero elkartzeko gara, adin beretsukoak gara, eta normala da harreman ona izatea: lagunak baino gehiago ikusten ditut taldekoak.”



du edo besteak, baina orekatuak izaten dira.

Gero Lepeko azken fasean Sporting-ek kaleratu zintuzten?

Bai atsedendira 3-0 gaitzen joan ginen. Lehen zati txarra egin guren. Bigarrenean, beste itxura bat eman guren, 3-2 hurbildu ginen, aukeraren bat izan guren, baina penarekin geratu ginen.

Zer moduzko maila dago adin honetan oro har?

Ona. Sevillak irabazi zuen finala, normalean talde ona izaten duen Espanyol-en aurka. Bartzelonak ere jokalaria onak ditu, bat lehen taldearekin ari da entrenatzen eta bigarren mailako taldearekin jokatzen.

Jokalaria horiek izango al dira laster futbol ligako izarrak?

Printzipioz hori izaten da harrobia lantzearen helburua. Gure taldeko jokalaria bat ere egon da lehen taldearekin.

Beraz pozgarria da zuentzat horrelako partidak jokatzea?

Bai, partida berezia izan zen, telebistaz eman zuten. Ez dakigu berriz noiz jokatuko dugun horrelakorik, azken hamar urteetan soilik bi aldiz jokatzen du Errealek txapelketa hau, urte askoan egon da aurrera egin gabe. Sari bat da guretzat.

Zeintzuk dira zure dohain nagusiak? Zure ezaugarriak?

Aire-jokoan, erdiraketetan, ondo moldatzen naiz, altuera nahikoa dut eta; ate azpian ere defenditzen naiz; azken finean, erabakiak hartzea da. Ikasteko edo hobetzeko daukat astindua.

Gaur garrantzitsua da hori...

Bai eraso gaur egun atezainarengandik hasten da.

Noiztik ari zara futbolean?

Txikitatik. Alebin mailan hasi nintzen Ostadarren. Infantil mailatik naiz Errealean eta oraindik beste bi urte ditut jubenil mailako taldearekin.

Eta bertan daukazu Zubietan?

Bai, beste jokalariei, Azpeititik edo Debatik datozeinei entzuten diet egunero ordubeteko bidea dutela eta ni hamar minututan han nago.

Nongo jokalariai dira?

Baiona inguruko bi jokalaria daude, Tenerifeko bat, oso txikitari etorri zena eta Tuterakoa; besteak gipuzkoarrak.

Zer moduzko giroa daukazu?

Ona. Egutegia ikusten gara, adin beretsukoak gara, azken finean harreman ona eduki behar, ia lagunak baino gehiago ikusten ditut eta.

Zubietatik fama zeukan lehen, orain protagonismoa Bartzelonan taldearen Masiak hartu du?

Zubietatik jokalaria on asko ari da ateratzen orain. Ruben Pardo adibidez. Ez dakit zenbaterainokoa den Barçarena. Egia da jokalariai atera dituela, baina Kataluniako gazteen ligan Espanyol da nagusi.

Zure helburua Errealean jokatzea al da?

Bai, gainera errealekoa naiz. Handia izango zen baina sartera ere behar izaten da.

Ba al duzu atezain kuttunik?

Bravo gustatzen zait. Denboraldira bukaeran oso ondo ibili da.

Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

ADURIZ DE LASARTE S.A
Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo oniztutua Etxeko txorizoa
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua
Txistorra Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

debelaz talleres
Mekanika,
Txapa,
Pintura

% 20 opari BOSCH markako ordezko piezetan. Mantentze-lanak: filtroak, balazta-pastilak, diskoak,...

Gainera, %10eko beherapena eskulanean, epakin hau aurkezterakoan*
*Ekaina bukaera arteko eskaintza

AUTOENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366671 • www.debelaz.com

BOSCH Service

LABURRAK.

Plater-tiro saioa eta arrantza irteerak

Buruntz Azpi elkarteak jakin arazten du, ekainaren 10ean 9:00etatik aurrera, Oiartzungo Arkaleko tiro-eremuan plater-tiro saioa antolatuta duela. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute elkarte egoitzan, ekainak 8ra arte.

Bestalde, maiatzan Leitzarain ibaiara antolatuta dituzten arrantza irteeretako emaitzak honako hauek izan dira. Arrantzaldi arineko saioan David Iglesia "Maki" izan zen irabazlea, Jesus Mari Gonzalez izan zen bigarren eta Antonio Dominguez hirugarren; xixare arantzan, Txentxo Urruzola izan zen lehenengo eta Juan Antonio Matxain bigarren.

Igeriketa ikastaroak Udal Kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak adin desberdinetarako hainbat igeriketa ikastaro eskainiko ditu ekaina eta uztailen zehar.

Maiatzaren 31etik ekainaren 27a bitartean igeriketan trebatzeko ikastaroak antolatuta ditu, 2008 eta 2006 urteetan bitartean jaiotako haurrentzat.

Txikieneen kasuan hastapen maila izango da bakarrik eta 2007-2008 urtekoek berriz, hastapen eta jarraipeneko ikastaroa izango da. Astean bost egunetan, astelehenetik ostiralera, izango dira saioak.

Helduek ere igeri egiten ikasi ahaliko dute. Ikastaroa ekainaren 4tik uztailaren 20ra izango da astean hiru egunetan, astelehena, asteazken eta ostiralean 20:30ean.

Haurren ikastaroetan izena emateko epea maiatzaren 28an, astelehena, amaitzen da; helduena berriz, ekainaren 1ean. Informazio gehiago eskuratzeko Kiroldegiko bulegotik pasa edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu beharko da.

Buruntzaldea IKT-n igeri egiteko aukera

Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldea 2012-2013 denboraldiari begira dago dagoeneko eta horregatik, herritarrei jakin arazten die haur eta gazteen izena emate epea zabaldu duela.

Interesa dutenek jarri harremanetan Borjarekin Lasarteko igerilekuan, astelehenetik ostiralera bitartean 18etatik 21ak bitartean edo 696 506 632 telefonon.

Informazio gehiago www.buruntzaldeaik.blogspot.com helbide elektronikoan eskura daiteke.

PILOTA.

Lasarte-Oria Donostiaren aurka

Gaur arratsaldean Herri arteko txapelketako lehen partidak

Herri arteko eskupilota txapelketa duela bi aste hasi bazen ere, Lasarte-Oriak final zortzirenetan hasiko du ibilbidea faboritoetako baten aurka, Donostia. Etorriko partidak gaur, 19:00etatik aurrera Michelingo pilotalekuan jokatuko dira.



Lasarte-Oriako taldeak lan gogorra egin beharko du Donostiari aurre hartzeko.

Nerea EIZAGIRRE

K irol guneko pilotalekuan gaur 19:00etatik aurrera Lasarte-Oria eta Donostiaren arteko hirurogei gutxiak ikusteko aukera izango da.

Jose Felix Solano entrenatzaileak aipatu digunez, "jardunaldi zaila izango da, txapela lortzeko faborito baita Donostia".

Lasarte-Oriako taldeko arduradunak azaldu duan, kadete mailan, Xabi Prieto eta Aritz Solanok jokatu dute, jubeniletan Axier Arteaga eta Ander Rekondok eta seniorretan Gorka Mendizabal eta Xabi Arteagak. Bikote honetan, azken orduko aldaketa izan da Mikel Elola lesioanatu egin baita.

Hauetaz gain, Xabi Rekondu eta Eneko Sarasola kadeteek, Iker Ipintza eta Unai Urruzola jubenilek eta Aitor Aranburu eta Jon Peio Artetxe seniorrek taldea osatuko dute.

Partidak

Aipatu legez, erronka handia izango du Lasarte-Oriak. Solanok aurreratu digunez,

bal eta Xabi Arteagak. Bikote honetan, azken orduko aldaketa izan da Mikel Elola lesioanatu egin baita.

Hauetaz gain, Xabi Rekondu eta Eneko Sarasola kadeteek, Iker Ipintza eta Unai Urruzola jubenilek eta Aitor Aranburu eta Jon Peio Artetxe seniorrek taldea osatuko dute.

Partidak Aipatu legez, erronka handia izango du Lasarte-Oriak. Solanok aurreratu digunez,

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 26

Michelin, 12:00etan

Ostadar-Astigarragako Mundarro
Jubenilen Ohorezko maila, igoera

Berazubi, Tolosa, 12:00etan

Tolosa-Ostadar

Kadeteen Ohorezko maila, igoera

Michelin, 16:30etan

Ostadar-Zumaiaiko

Erregional Garena, 2. postua jokoan

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 26

Mosso OROIMENEZKOA

Michelingo kirol gunean

13:00etan, Oriako kristaldegia-Indaux

PILOTA

Ostirala 25

Michelingo pilotalekuan, 19:00etan

Lasarte-Oria-Donostia

Herriarte txapelketa

Kadete, jubenil eta senior partidak

SQUASHA

Ostirala 25

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Iker Cañedo-Joaquin Peña

Xabier Amiano-Kinin Calvo

Astelehena 28

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Konsolazioa

Asier Munduate-Fernando Montero

Raul Mateos-Juanjo Martin

Asteartea 29

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Iker Cañedo-Iñaki Garcia Muñuz

Oswal Cañedo-Xabier Amiano

Asteazkena 30

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Konsolazioa

7. partida

8. partida

Osteguna 31

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Joaquin Peña-Kinin Calvo

Xabier Amiano-Iker Cañedo

GIMNASTIKA

Larunbata 26

Labegarieta kiroldegia, Bergara,

10:00etan eta 18:20etan

LOKEko Garazi Gomez, Aizpea

Arroyo eta Ariadne Aguado

gimnastak eta kadete taldea

Gipuzkoako txapelketa izango dira

lehiatzen.

ATLETISMOA

Larunbata 26

Unbe, Eibar, 10:30etan

Landaberri ikastolako Eneritz Busto,

Oihana Igarritz eta Idoia Oiasagastik

Euskadiko Eskolarteko kirol

jokoetan izango dira.

Arrasate, 16:00etan

LOKE eta herriko atletak kadete,

junior, jubenil eta beterrano

mailetako Gipuzkoako txapelketako

azken jardunaldian parte hartuko

dute.

Igandea 27

Donostia, 10:00etan

Hainbat herritarrek Enpresen

V. lasterketan parte hartuko dute.



IGERIKETA

Larunbata 26

Paco Yoldi, Donostia, 10:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior

eta absolutu mailako igerilariak

Richard Oribe sarian parte hartuko

dute.

Arizbatalde kiroldegia, Zarautz,

10:00etan eta 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko Ainari Garcia

igerilari gaztea Euskadiko

Eskolarteko kirol jokoetan izango

da Gipuzkoako selekzioarekin.

TRIATLOIA

Larunbata 26

Hondarribi, 15:00etan eta 17:00etan

Herritar talde batek Hondarribiako

triatloi herrikoian eta triatloi sprint

txapelketetan parte hartuko du.

MENDIA

Igandea 27

Tolosa, 07:00etan

Herriko mendizale talde batek Aralar

inguruetatik egiten den XIV. orduko

mendi marxan parte hartuko du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 26

Zegama, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko jubenilek XXVIII. Elkartu

nahi sarian parte hartuko dute.

Igandea 27

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

irteera dute Basakabira.

Iruñea, 08:30ean

Herriko hainbat zikloturistek Iruñea-

Iruñea Zikloturista lasterketan parte

hartuko dute.

Urretxu, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek XXX. Amelio

Mendijur Oroimezkoan parte

hartuko dute.



BOLO-JOKOA

Igandea 27

Gabiria, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeko

kideek Gipuzkoako txapelketa

parte hartuko dute.

KIROL SUSTAPENA

Larunbata 26

Kirol guneko atletismo pista, 12:00etan

Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen

duen alebin mailako kirol sustapena

ekimeneko ikasturteko azken saioa

egino da.

Agenda

Kaleetan zehar, egun osoa



Dantzari txikien trebezia

Erketz EDT-k Dantzari txiki eguna antolatu du aurten ere. Lasarte-Oriako kaleetatik barrena herriko Kukuka, Errenteria eta Urretxuko dantza taldeak ikusi ahalko dira goizean eta arratsaldean guztiek emanaldia eskainiko dute Okendo plazan. Eguraldi txarra egin ez gero, Michelingo pilotalekuan egingo da emanaldia.



KUKUKA
antzerki eta dantza eskola

Kukuka Antzerki eta Dantza eskola X. urteurrena

Larunbata 26
Okendo plazan

09:00etan, diana dultzaineroekin.
11:30etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleen desfilea.
13:00etan, Erromeria eta muxikoak Amalur trikiti eta pandero eskolaren eskutik.
14:00etan, bazkari herrikoia.
15:30etan, bazkalondoa kantuak, Ahuen taldea, bertsolariak, Jalguneko lagunak eta eskolako helduen taldeen emanalditxo bat ikusteko aukera.
16:30etan, batukada.
17:00etatik aurrera, Añorgako antzerki taldeko saioa, Kontu kantoiaren ipuin kontaketa eta kale animazioa.
18:30etik aurrera, Manillares Iturriaga taldearen kontzertua eta Alain eta Naken Djen saioa.
23:00etatik aurrera, The Garaje-kuak, Gabeko Itzalak eta Trikiho- tsen kontzertuak.

Lasarte-Oria

Musika

MAU TABERNA

Larunbata 26, 20:30ean

Blues eta rock kontzertua eskainiko du "Los Railes" taldeak.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatza bukaera arte

Mundu Bat GKE-ren "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ekainaren 8a arte, 18:00etatik 21:00etara

Lasarte-Oriako Danborradako erakus-

keta ikusgai dago. 1947tik gaur egunera arteko argazkiak bildu dituzte.



EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Aste honetan zehar

Saharako errefuxiatuak bizi diren Arjeliako Tindouf kanpamentuetako argazkiak ikusgai.

Hitzaldia

VILLA MIRENTXU

Asteazkena 30, 19:00etan

"Nola konpontzen ditugu gure fami-

liako gatazkak?" dibulgazio hitzaldia eskainiko du Eusko Jaurlaritzako Familia Bitartekaritzarako Zerbitzuak. Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Kooperazioa, Inmigrazioa, Enplegua eta Emakumea Departamentuak antolatu du hitzaldia.

X. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostilara 25, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako helduen taldeak "Kubalibre" lana antzetzuko du. Euskaraz.

Ostilara 25, 22:30ean

Kukuka antzerki eta dantza eskola helduen taldeek "Maitasun erratuak" eta "Piztiak dio" lanak antzetzuko dituzte. Euskaraz.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeko egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 28ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 25an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadora-ren omenezko meza

Maiatzean Maria Auxiliadora-ren hilabetea ospatzen denez, maiatzaren 27an, igandean, eguerdiko 12:30ean Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Ama Birjina honen ohorezko meza ospatuko da.

Meza amaitzean luntx txikia konpartitzeko aukera egongo da.

Galdutako gauzak

Maiatzaren 5ean, Loidi-Barrengo pilotalekuan antolatu zen Amaraun jaialdian, Batman-en kapa grisa eta beltza galdu zen.

Norbaitek aurkituz gero, dei dezala 636694375 telefono zenbakira.

Iradokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Hirigintza saila

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Eskuitza

Lorpen historikoa

Ikaragarria, ez sinisteko modukoa, ziurrenik errepika ezina... historikoa! Ostadarreko Kadeteek Euskal Ligan jokatzeko txartela lortu zuten pasa den larunbatean, kategorian horretan Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen mailarik altuena.

Leherrook ezingo dute islatu gure jokalariei eta entrenatzaileek egindako balentriaren handitasuna; ezinezkoa baita hitzez jasotzea denboraldi osoan zehar futbol zelaian ikusitakoa.

Harro egoteko moduko lorpena izan da, bai. Baina bada guztien gainetik azpimarratu nahiko genukeen datu bat: etxeko jokalariekin lortutako igoera izan dela; horietako asko, gainera, Ostadar S.K.T.ko futbol-eskolan hazi eta hezitakoak.

Datorren denboraldia gogorra izango da, baina polita eta gozatzena. Mitxelingo belar artifizial berrian Realeko, Athletic-eko edota Alavés-eko jokalarien bisita jasoko dugu, eta

haiek ere Ostadarren berri izango dute.

Denboraldia bukatzean dagoen honetan, astebeteko epean bigarren lorpen historikoaren atarian egon gaitzete. Preferente mailako taldea Oho-rezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatzeko ari da Zumaia-koren aurka. Joanekeoan bana berdindu zuten, eta kanporaketa bihar, hilak 26, erabakiko da Mitxelinen arratsaldeko 16:30etatik aurrera -partida hasi aurretik Kadeteek omenaldia jasoko dute -.

Ostadar S.K.T.ak bertan egoteko gonbita luzatu nahi dizu. Zure animuek ez dute golik sartuko, baina helburua lortzen lagunduko digute.

Mitxelinen elkar ikusiko dugulakoan, AUPA OSTADAR! AURTEN BAI!

Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Ostadar Saiarre Kirol Taldea

Kukukaren festa handia

Egun osoko jaialdia izango da bihar Okendo plazan Kukukaren X. urteurrena ospatzeko

Herriko Antzerki eta Dantza eskolak bere hamabostaldia-ri amaiera bikaina emango dio X. urteurrena ospatzeko antolatu duen jaialdiarekin. Okendo plazan bihar egun osoko egitaraua antolatu dute. Kukukakoek desfile ikusgarria egingo dute herrian barrena 11:30ean hasita. Erromeria, batukada eta kontzertuak ere ez dira faltako hain egun berezian.

U rteroko zitari hutsik egin gabe, bi astez, Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasle eta irakasleak ikusi ahal izan ditugu beste behin ere ohol-tza gainean maixu.

Gaur, ostirala, izango dira azken antzezlanak Manuel Lekuona kultur-etxean. Helduen hiru taldeek euren lanak taularatuko dituzte. Lehenek 19:00etan egingo dute saioa. "Kuba Libre" antzezlanean aktore lanetan ariko dira 60-75 urte arteko hamabi lagun. Taldeak lehenengo ikasturtea izan du hau eta irakasle izan dute Joxe Mari Berasategi "Txapas".

Ondoren 22:30ean, bi lan

ikusteko aukera izango da, lehena "Maitasun errotuak" Solaskide ekimeneko eskaldun berrien eskutik eta azkenik, "Piztiak dio".

Hamabostaldia gaur bukatu arren, antzerki eta dantza eskolako arduradunek oso balorazio positiboa egiten dute "saio askotarako sarrerak oso azkar agortu dira eta oso pozik gaude herritarrek egingako harrerarekin".

Jaialdia

Hamabostaldi oparo honi amaiera eman eta X. urteurrena ospatzeko, jaialdi handia antolatu dute biharko.

Goizeko 9:00etan dultzai-neroen dianarekin hasiko da



Landaberri eskolako haurrek asteartean antzeztu zuten "Goazen ilargira" lana Manuel Lekuonan.

festa. Ondoren, eskolako ikasle eta irakasleen desfilea izango da herrian barrena 11:30etatik aurrera. Berrikuntza moduan, musika zuzen-koa izango da Trikihots taldeari esker. Honetara Kukukaren kamisetarekin etorri behar da. Salgai dago Ika eta Uruzola dendetan.

Erromeriak hartuko du lekukoa Amalur musika eskolakoekin 13:00etan. Bazkari


herrikoa izango da 14:00etatik aurrera eta 15:30ean bazkalondoko kantak, Ahuen taldea bertsolariekin batera, Jalgune eta eskolako helduen taldeen emanalditxoak.

16:30ean batukada eta 17:00etan Añorgako antzerki taldearen emanaldia, ipuin kontaketa Kontukantorekin eta kale animazioa.

Kontzertuak 18:30ean hasiko dira Manillares Iturria-

ga eta Alain+Naken dj-ekin eta 23:00etan, The Garaje-kuak, Gaueko itzalak eta Trikihots izango dira festa eguna bukatzeko arduradunak.

Eguraldi txarra egitekotan, unean erabakiko da ekintzak nora eraman. Badaezpada Loidi Barrengo frontoia hartuta dutela jakitera eman dute Kukukakoek. Herritarrek festan parte hartzera animatzen dituzte.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



AURREMATRIKULA

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

**Maiatzaren 28tik
Ekainaren 8ra**

Energia eta ura



e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600